

# H<sub>LH4</sub>

2018/2019



# Zuzenketarako Koaderno

*Izen-deiturak:*

*Ikastetxea:*


*Taldea:*

*Herria:*

*Data:*

**Euskal Hizkuntza**  
**Gaitasuna**

*LHko 4. maila*



# Jarraibideak

Probak bi zati ditu: bata irakurriaren ulermenarena, eta bestea, idazmenarena.

- Probako **lehenengo zatian** zenbait testu irakurriko dituzu, eta horiei buruzko galdera batzuei erantzun beharko diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

**Zenbat biztanle ditu Iruñeak?**

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

**Zenbat biztanle ditu Iruñeak?**

- A. Bartzelonak bezainbat.
- ☒ B. 200 000, gutxi gorabehera.
- C. Milioi bat.
- ☒ D. Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan, aldiz, eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuak dituen gunean:

**Zein da Iruñeko tokirik ezagunena?**

.....

Galdera batzuk errazak dira eta beste batzuk zailagoak. Galderaren bat ulertzen ez baduzu, besteei erantzuten segitu ahal duzu, eta geroago saiatu erantzun gabe utzitakoa egiten.

- Probako **bigarren zatian** idazlan bat egin beharko duzu, eman zaizkizun jarraibideei kasu eginez.



**Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.**

# 1. zatia - Irakurmena



## INDIO IBILTARIA

Kontatzen dutenaren arabera, orain dela urte asko Euskal Herritik oso urruti dagoen lurralde batean Indio Ibiltaria bizi zen.

Ibiltzea oso gustuko zuenez, harantz eta honantz ibiltzen zen, eta bidaietatik itzultzean, bere tribukoek gogo biziz entzuten zituzten lagunak ikusi eta bizitakoak. Arrainez betetako erreka handiak, oihan txikiak, mendiak eta lautada zabal-luzeak ziren indioaren kontagai.

Buru-belarri egoten ziren indio Ibiltariaren kontakizunak entzuten eta bete-bete sinetsi ere sinesten zituzten. Behin batean, alabaina, beregan zuten ustea galdu egin zuten.

– Munduaren beste aldean –hasi zitzairen kontatzen– iparraldeko lurretan, hemendik oso urruti, haize epelagoa den tokietan, zuhaitzetako hostoak ez dira urte osoan berdeak izaten; garaia heltzen denean, kolorez aldatzen dira, gorrixkak eta horixkak bihurtzen dira. Lurrera erori eta dena herdoilaren antzeko margoz estaltzen da. Udazkena esaten diote horri. Ondoren, elurra eta euria etortzen dira. Gero, zuhaitzetako adarretatik agertzen dira berriro ere hosto berriak, berde eta distiratsuak. Eta sei ilargiren ondoren udazkena etortzen da berriro bueltan.

Aho zabalik eta erabat harriturik entzun arren, herritarrek ez zioten sinetsi kontatutakoa.

– Bai ipuin xelebrea! –esaten zuten–. Hori ezin liteke egia izan, bai zera! Urteko sasoi horri udazkena esaten diotela! Tira, tira... Hain ziur baldin bazaude, udazkena ekarriko diguzula zin egin ezazu!

Indio Ibiltariak orduan zin egin zuen udazkena ekarriko ziela.

Egunak joan, egunak etorri, urteak aurrera zihoazen. Indio Ibiltariak munduko bazter guztiak korritu zituen eta bidean aurkitzen zuen guztiari galdera bera egiten zion: udazkena bere lagunei eraman ahal izateko modurik ezagutzen ote zuten. Denek ezetz esaten zioten ordea.

Ilea, elurra bezain zuri bihurtu zitzaion; urteek eta nekeek, pausoa moteldu zioten. Bere tribukoei agindutakoa, ordea, ez zitzaion sekula ere ahaztu.

Uda bukaerako egun bero hartan mendi artean zebilen gure indioa. Harri artean zihoan bidexka estu bati jarraituz. Bideak kobazulo handi batera eramane zuten. Bertan, harri handi baten gainean eserita erraldoi bat topatu zuten. Esku artean zuten izotzezko pipa batekin jolasean ari zen. Indio Ibiltariak ahoa zabaltzeko orduko erraldoia hizketan hasi zitzaion:

– Toki honetara etortzeagatik, zigortu egin beharko zintuzket! –esan zion kopeta ilunduz–. Ni Hotzaren Nagusi Jauna naiz. Badakit zeren bila zatozen, eta neuk bakarrik esan diezazuket nola bete zure desioa. Baina jakin beharra duzu bizia galduko duzula udazkena zure herrira eramatearen truke.

– Bost axola zait! –erantzun zion Indioak–. Nire lagunei emandako hitza betetzen laguntzen badidazu, zoriontsu izango naiz!

– Ongi da orduan –esan zion erraldoiak.

– Abia zaitez bizkor. Hemendik ez oso urruti harkaitz handi bat aurkituko duzu; honen azpian, udazkenaren errekatxo jaiotzen da. Zurrutadatxo bat edan besterik ez duzu egin behar... Eta, orain ospa hemendik! Izotzezko pipa erretzeko amorru bizian nago-eta!

Indioak bizkor alde egin zuen handik: ez zuen astirik galdu. Hitza beteko zuen azkenean! Zeru ertzean hodei beltzak biltzen ari ziren eta haizearen txistua... fiuuuuuu!... entzuten zen. Udazkena gainean zuen.

Gertu zegoen harkaitz handia; hortzak estutuz eta zituen indar guztiak batuz, harria mugitzea lortu zuen. Haren azpian errekatxo gorrixka bat jaiotzen zen.

Indioak ez zuen zalantzarik egin, belauniko jarri, ura eskuetan hartu eta geldigeldi edan zuen.

Zutitzean, pauso bakar bat emateko ere ez zen gauza... Zangoak lur barrura sartuak zituen sustraiak bezala. Eskuei begiratu zien, eta adar okerrak bihurtzen ari zitzaizkiola ikusi zuen, beraietatik hosto txikiak jaiotzen zitzaizkiola. Indio Ibiltaria pozik zegoen ordea.

Indioen herri ondoan erreka gorrixka berri bat jaio zen hurrengo egunean. Eta errekaekin batera hosto gorriak zituen zuhaitz bat. Hosto haiek gorritu eta lurrera erori ziren. Egun batetik bestera han agertu zen zuhaitza hila zela pentsatu zuten indioek. Baina udaberrian hosto berriak jaio zitzaizkionean miresmenez begiratu zioten erreka gorriaren ondoko zuhaitzari.



Ondoren ulertu zuten beraien lagun zaharraren gauza izan zela.

– Gure lagun Indio Ibiltariak hitza bete du. Udazkena ekarri digu azkenean!

*Indiarren ipuin herrikoa (moldatua).*

**1. Non bizi zen “Indio Ibiltaria”?**

- A. Ameriketan.
- B. Amerikatik urrun.
- C. Euskal Herriatik oso urrun.
- D. Iparraldeko lurretan.

**2. Zeintzuk izan ohi ziren Indio Ibiltariaren kontagai nagusiak?**

- A. Urtaroei buruzko kontakizunak.
- B. Erreka handiak, oihan txikiak, mendiak eta lautadak.
- C. Bere bidaietan zehar ikusten zituen gauzak.
- D. Lotan zegoenean amesten zituen istorioak.

**3. Behin batean, ordea, herritarrek ez zioten kontatutakoa sinetsi.**

- A. Egia, EZ zioten sinetsi.
- B. Batzuek bakarrik sinetsi zioten.
- C. Erdizka sinetsi zioten.
- D. Beti sinesten zioten.

**4. Nork kontatzen du istorioa?**

- A. Narratzaile batek.
- B. Hotzaren Nagusi Jaunak.
- C. Indio Ibiltariaren tribukoek.
- D. Indio Ibiltariak.

**5. Indio Ibiltariak bere tribukoei hitza eman zien kosta ahala kosta...**

- A. erraldoiaren pipa ekarriko ziela.
- B. udaberria ekarriko ziela.
- C. udazkena ekarriko ziela.
- D. egia kontatuko ziela beti.

**6. Idatzi 1etik 4ra dagokion zenbakia, ezkerreko eta eskuineko esaldiak lotzeko:**

|                      | Zenbakia |                                        |
|----------------------|----------|----------------------------------------|
| Urteak...            | 3        | (1) ...denei galdera bera egiten zien. |
| Indio Ibiltariak...  | 1        | (2) ...ilea zuritu egin zitzaion.      |
| Indio Ibiltariari... | 2        | (3) ...aurrera zihoazen.               |
| Urteek eta nekeak... | 4        | (4) ...pausoa moteldu zioten.          |

| Zuzenketarako irizpideak |                           |
|--------------------------|---------------------------|
| Puntuazioa               | Erantzuna/k               |
| 0                        | Bat ere ez edo bat zuzen. |
| 1                        | Bi edo hiru zuzen.        |
| 2                        | Laurak zuzen.             |

**7. Uda bukaera aldera leku ezezagun batera iritsi zen. Nolakoa zen leku hori?**

.....

.....

.....

| Zuzenketarako irizpideak |                                                                                                                                                                                                           |
|--------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Puntuazioa               | Erantzuna/k                                                                                                                                                                                               |
| 0                        | Erantzun okerra edo osatu gabea.                                                                                                                                                                          |
| 1                        | Leku ezezaguna testuan bezala (edo antzera) deskribatzen du:<br><i>"...mendi artean zebilen gure indioa. Harri artean zihoan bidexka estu bati jarraituz. Bideak kobazulo handi batera eramane zuen".</i> |

**8. Nor zegoen eserita bidexkaren bukaeran?**

- A. Erretzen ari zen gizon bat.
- B. Indiar bat kobazulo batean.
- C. Piparen Nagusi Jauna.
- D. Erraldoi bat harri batean eserita.

9. Zer esan zion Hotzaren Nagusi Jaunak Indio Ibiltariari? Adierazi X batez egia ala gezurra den.

|                                        | EGIA | GEZURRA |
|----------------------------------------|------|---------|
| Hotzaren Nagusi Jauna zela.            | X    |         |
| Bere laguna izateko.                   |      | X       |
| Bazekiela zertara zetorren.            | X    |         |
| Bizia galduko zuela udazkenaren truke. | X    |         |

| Zuzenketarako irizpideak |                           |
|--------------------------|---------------------------|
| Puntuazioa               | Erantzuna/k               |
| 0                        | Bat ere ez edo bat zuzen. |
| 1                        | Bi edo hiru zuzen.        |
| 2                        | Lau erantzunak zuzen.     |

10. Nora bidali zuen Hotzaren Nagusi Jaunak Indio Ibiltaria udazkenaren bila?

- A. Inora ez, ez zion esan nahi izan.
- B. Bere kobatik bota zuen.
- C. Ondoko mendi batera.
- D. Udazkenaren errekatxora.

11. Zer esan nahi du idazleak “hortzak estutu” idazten duenean?

- A. Indioak indar handia egin zuela.
- B. Harkaitza oso handia zela.
- C. Indioak presa handia zuela.
- D. Indioak zalantzarik ez zuela.

12. Zer aurkitu zuen Indio Ibiltariak harkaitz erraldoia mugitu zuenean?

- A. Iturri eder gorrixka bat.
- B. Erreka garden gorrixka bat.
- C. Ezer ez, hutsik zegoen.
- D. Harri bitxi distiratsu batzuk.

**13.** “Zeru ertzean hodei beltzak biltzen ari ziren eta haizearen txistua... fiuuuuuu!... entzuten zen”. Zer egin zuen orduan?

- A. Erraldoiaren kobazulora bueltatu.
- B. Zuhaitz bihurtu.
- C. Belauniko jarri eta ura edan.
- D. Aterpe baten bila hasi.

**14.** Zer gertatu zitzaien Indio Ibiltariari ura edan ondoren?

- A. Egarria asetu zuen.
- B. Zuhaitz bihurtu zen.
- C. Han ez zegoen errekarik.
- D. Ekaitza baretu zen.

**15.** Indioek hosto gorrixkadun arbola miresten dute...

- A. Izugarri polita iruditzen zaielako.
- B. Harri bitxien distira duelako.
- C. Udazkena maite dutelako.
- D. Indio Ibiltariak hitza bete duelako.

**16.** Zer beste izenburu jarriko zenioke istorio honi?

.....

| Zuzenketarako irizpideak |                                                    |
|--------------------------|----------------------------------------------------|
| Puntuazioa               | Erantzuna/k                                        |
| 0                        | Istorioarekin zerikusirik ez duen izenburua.       |
| 1                        | Istorioarekin zerikusia edo lotura duen izenburua. |



## KAKAOTIK TXOKOLATERA

Txokolatea egiteko oinarria kakao-haziak dira. Kakao-hazi naturalek ez dute izaten txokolatearen kolore, usain eta zaporerik. Txokolate bihurtzeko, zenbait pausotan prozesatzen dira kakao-haziak: hartzitu egiten dira, lehortu, txigortu eta xehetu, harik eta kakao-orea eta kakao-gantza sortu arte. Ondoren, gainerako osagaiak eranstean zaizkio (txokolate mota bakoitzari bereak). Behin pasta homogeneoa lortutakoan, xehe-xehe ehotzen da guztia, partikula txiki-txikiak geratu arte. Hurrengo urratsean, produktua modu mekanikoan astintzen dute zenbait orduz, azido lurrunkorrak eta ura lurrundu daitezzen. Eta ondoren hoztera uzten dute pasta. Une horretan, prest egongo da txokolatea, eta moldeetan sartzea baino ez da falta, produktuak azken forma har dezan. Era askotakoak izan daitezke: txokolate barratxoak, tabletak, bonboiak...



## TXOKOLATEA: MITOAK ETA EGIAK

**Txokolateak gizendu egiten du.** Txokolatea gozo bat da, azukreak eta gantzak dituenak. Dosi txikietan hartzea komeni da, noizean behin. Gizentasuna sekula ez da sortzen elikagai bakarraren erruz. Dieta osoa desorekatua izateak eta ariketa fisikorik ez egiteak eragiten dute, nagusiki, gizentasuna.

**Aknearekin gora eta behera.** Azterketarik berrienak ondorioztatzen du ezin dela erabat frogatu txokolateak pikorrak eta zaldarrak agerrarazten dituenik. Lan horretan esaten da sebo gehiegi ekoizteak sortzen duela aknea, eta faktore hormonalek ere badutela zerikusia, ez soilik dietetikoek.

**Ez du sortzen mendekotasunik, baina hobetu egin ditzake gogo-aldarteak.** Esaten da txokolatea bizigarria izan daitekeela, lasaigarria, afrodisiakoa eta depresioaren aurkakoa ere bai. Gogo-aldarteei eragiten omen die, askotan aipatzen da hori, baina ikerketa gutxi berresten dute lotura hori.

## JAINKO-JAINKOSEN OPARIA

Ameriketako biztanleek aspalditik ezagutzen zuten kakaoa. Txokolate hitza, *xoco* ('mikatza') eta *atl* ('ura') hitzak elkartuta sortu zuten. Europarrek 1502. urtean izan zuten kakaoaren berri, aztekek Kristobal Koloni hazi batzuk eman zizkiotenean. Ameriketako indiarrek jainko-jainkosen oparizat zeukaten. Europako lehen txokolatea Zaragozan hasi ziren egiten, XVII. mendean. XIX. mendera arte, luxuzko produktua zen txokolatea, baina Industria Iraultza gertatu zenean, demokratizatu egin zen, eta jende gehiagoren esku jarri. Txokolate esneduna Suitzan egin zuten lehen aldiz, 1875. urtean.

*"Goiena" astekaria (moldatua).*

**17. Txokolatea...**

- A. kolore, usain eta zapore gabekoa da.
- B. kakao-haziak erabiliz egiten da.
- C. lehortu, xigortu eta xehetu egiten da.
- D. kakao-orea eta kakao-gantza da.

**18. Txokolate mota bakoitzari...**

- A. forma desberdina ematen zaio.
- B. bere osagaiak eransten zaizkio.
- C. bere kolorea ematen zaio.
- D. kakao-hazi desberdinak eransten zaizkio.

**19. Noiz sartzen da txokolatea moldeetan?**

- A. Prozesu guztiaren hasieran.
- B. Pasta homogeneoa bihurtu denean.
- C. Guztiz prest dagoenean.
- D. Ez da molderik erabiltzen txokolatea egiteko.

**20. Aipatu txokolateak har ditzakeen hiru forma desberdin.**

.....

.....

| Zuzenketarako irizpideak |                                                                          |
|--------------------------|--------------------------------------------------------------------------|
| Puntuazioa               | Erantzuna/k                                                              |
| 0                        | Ez ditu testuan agertzen diren hirurak aipatu.                           |
| 1                        | <i>Txokolate barratxoak, tabletak eta bonboiak</i> jarri ditu behintzat. |

**21. Txokolatea...**

- A. ez da gozo bat.
- B. noizean behin hartzea komeni da.
- C. gizentasunaren sortzailea da.
- D. A, B eta C okerrak dira.

**22. Txokolateak “aknea” sortzen duela frogatu daiteke?**

- A. Azterketa berrienek diote ezin dela frogatu.
- B. Bai, “sebo” gehiegi ekoizten dugulako.
- C. Bai, pikorrak eta zaldarrak sortzen dituelako.
- D. Bai, gantzak dituelako.

**23. Txokolateak mendekotasunik sortzen al du?**

- A. Ez, ez du sortzen.
- B. Ez, baina gogo-aldarteak hobetu ditzake.
- C. Ez, baina bizigarria izan daitekeela esaten da.
- D. A, B eta C zuzenak dira.

**24. Aipatu, txokolatea jaten badugu, gogo-aldartean hobetu dakizkigukeen lau gauza.**

.....

.....

.....

| Zuzenketarako irizpideak |                                                                                                  |
|--------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Puntuazioa               | Erantzuna/k                                                                                      |
| 0                        | Erantzun okerra edo osatu gabea.                                                                 |
| 1                        | <i>Bizigarria, lasaigarria, afrodisiakoa eta depresioaren aurkakoa</i> dela aipatu du behintzat. |

**25. Noiztik ezagutzen zen kakaoa?**

- A. Ameriketako aspaldidanik ezagutzen zuten.
- B. Europarrek Ameriketara eraman zutenetik.
- C. Kristobal Kolon izan zen lehena ezagutzen.
- D. Lehenik Europan ezagutu zen.

**26. “Amerikar indiarrek jainko-jainkosen oparitzat zeukaten”. Nor edo zer?**

- A. Xocoatl edo txokolatea.
- B. Txokolate esneduna.
- C. Zaragozako txokolatea.
- D. A, B eta C zuzenak dira.

**27. Europako lehen txokolatea...**

- A. XV. mendean egin zen.
- B. Zaragozan egin zen.
- C. Suitzan egin zen.
- D. A, B eta C zuzenak dira.

**28. Zeri esango zaio “txokolate esneduna”?**

- A. Txuria den txokolateari.
- B. Esnearekin egindako txokolateari.
- C. Beltza den txokolateari.
- D. Txokolate guztiak dira esnedunak.

## 2. zatia - Idazmena

Orain, zeu zara idazlea...

Txokolatearen indarra



Aitonak txokolatea oparitu dizu. Txokolate hori berezia da, indartsu egiten zaitu-eta. Konta ezazu nola eta zertarako erabiliko zenukeen indar hori.

Idazlana egiten hasi aurretik, hurrengo laukian ideia labur batzuk apuntatu ahal dituzu jarraibide gisa erabiltzeko.

A large dashed rectangular box intended for writing ideas.

**29. Idatzi zure hausnarketa** eta gogoratu:

- Idatzi ongi eta txukun.
- Bereizi testua paragrafoetan.
- Errespetatu ortografia arauak.
- Eta ez ahaztu puntuazio-markak erabiltzea!

Handwriting practice lines consisting of 25 horizontal dotted lines.

***Zuzentzaileak edo irakasleak  
bete beharreko puntuazio taula***

|                                                     | <b>Puntuazioa<br/>0, 1, 2 edo 3</b> |
|-----------------------------------------------------|-------------------------------------|
| <b>Aurkezpena eta<br/>ortografia</b>                |                                     |
| <b>Kontakizunaren<br/>koherentzia</b>               |                                     |
| <b>Zuzentasuna eta<br/>hiztegiaren aberastasuna</b> |                                     |
| <b>29. itema – Guztira</b>                          |                                     |

## Idazlana zuzentzeko irizpideak (Lehen Hezkuntzako 4. maila)

Zuzenketa lanean ondoko alderdietan eman behar da puntuazioa: egokitasuna eta aurkezpena, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna. Alderdi bakoitzari 0tik 3ra bitarteko puntuazioa emanen zaio, ondoko irizpideen arabera:

|                                                 | 0 puntuazioa                                                                                                                                                                                      | 1 puntuazioa                                                                                                                                                     | 2 puntuazioa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | 3 puntuazioa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|-------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Aurkezpena eta ortografia</b>                | Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.<br><br>Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko ditu.                                                                                | 0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du.<br><br>2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu. | Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Txukun idatzita dago</u> (ez dago zirrimarrarik...)</li> <li>▪ <u>Letra</u> argia eta irakurterraza.</li> <li>▪ <u>Marjinak</u> ongi zehazturik daude.</li> <li>▪ <u>Ortografia</u>: testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s/x gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira); zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.<br><br>2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <b>Kontakizunaren koherentzia</b>               | Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.<br><br>Koherentziarik eta egiturarik gabeko kontakizuna egin du. Edukiari dagokionez, jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude.                  | 0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du.<br><br>2 puntuazioko eskakizunetako lau bete ditu.  | Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Egitura</u> argia: gertaerak kronologikoki kontatu ditu, ongi deskribatu ditu tokiak eta sentipenak (ipuinaren kasuan: aurkezpena, korapiloa eta bukaera bereizi ditu).</li> <li>▪ <u>Paragrafo kopurua</u>: hiru paragrafotan, gutxienez, banatu du testua paragrafoetan.</li> <li>▪ <u>Bilakaera tematikoa</u>: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere; kontakizuna erraz segitzen da.</li> <li>▪ <u>Perpausak</u>: perpausak ideia osoak adierazten dituzte.</li> <li>▪ <u>Joskera</u>: paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa).</li> <li>▪ <u>Pertsonaien ezaugarritzea</u>: pertsonaiak eta beren ekintzak ongi zehazturik daude (nork zer egiten duen argi gelditzen da).</li> </ul> | Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.<br><br>2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazlanak ezaugarri hauek ditu: argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea ( <i>orduan</i> ; <i>geroago</i> ; <i>hala ere</i> , etab.); ez dago alferrikako errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa), ez dago jauzirik edo hutsunerik. |
| <b>Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna</b> | Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.<br><br>Perpausak ez dira zuzenak. Ez ditu bereizi kode idatzia eta ahozkoa: hitz egiten duen bezala idatzi du. Gramatika akats dezente egin ditu. | 0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du.<br><br>2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu. | Lehen Hezkuntzako 4. erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Sintaxia</u>: idazlanean erabilitako sintaxi egiturak zuzenak dira. Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez.</li> <li>▪ <u>Aditzak</u>: oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua).</li> <li>▪ <u>Komuntadura</u> akats batzuk egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...).</li> <li>▪ <u>Deklinabidea</u>: kasu markak ongi erabili ditu, oro har.</li> <li>▪ <u>Erregistroa</u>: argi eta garbi bazterrean utzi ditu lagunarteko eta ahozko hizkuntza.</li> <li>▪ <u>Lexiko</u> egokia erabili du (adjektiboak, adberbioak, hitz eratorriak, hitz elkartuak...). Pertsonaiei eta ekintzei buruzko informazio garrantzitsua ematen dute erabilitako hitzek.</li> </ul>                                                                                                     | Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.<br><br>2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, ez du gramatika akatsik egin, lexiko aberatsa baliatu du eta sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testua oso ongi idatzita dago, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.                                                                      |



Jarraian, aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioez gain, zuzenketen deskripzio zehatzak ere ikus daitezke. Bistan denez, ez da prozedura mekanikoa. Zuzentzaileak ariketa kasuz kasu baloratu du, adierazleen arabera. Kasu askotan nabarmena da adierazlea betetzen den ala ez. Beste batzuetan, ordea, ez da horren agerikoa, eta malgutasunez baloratu behar da nahitaez.

## 1. adibidea

SUPER TXOKOLATEA

bazen behin joan behar nintzen ikastolara eta nire ama lana egitera. Bukatu nuen ikastola nire ama artu zidan ikastolatik eta joan nintzen nire aitonaren etxera. Nire aitona esan zidan belarra:

- Tori txokolateak kontuz izan jaten baduzu indartsua egiten dizu.
- Eskerrikaske kontuz izango du, esan nion nik. Urrengo egunean nirere ama esan zidan:
- Al didazu lagundu artzen mahia. Al probatu nuen txokolate pista bat eta al nuen altsatu esku batekin. Nire ama esan zidan:
- Nola al duzu altsatu esku batekin. eta nik esan nion:
- Aitona txokolate bat eman dit eta indartsu bihurtzen zazu. Bururatu zitzaidan lagundu zendea.

**Anaiera**

| <b>Zuzentzaileak edo irakasleak<br/>bete beharreko puntuazio taula</b> | <b>Puntuazioa<br/>0, 1, 2 edo 3</b> |
|------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|
| <b>Aurkezpena eta<br/>ortografia</b>                                   | <b>1</b>                            |
| <b>Kontakizunaren<br/>koherentzia</b>                                  | <b>1</b>                            |
| <b>Zuzentasuna eta<br/>hiztegiaren aberastasuna</b>                    | <b>1</b>                            |
| <b>29. itema – Guztira</b>                                             | <b>3</b>                            |

## 1. adibidea

### Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukuna da, zirrimarrarik gabea. Izenburua jarri du eta itxura garbia du.
- Letra. Ulerterraza eta ulergarria da.
- Marjinak. Ongi eutsi die marjinei
- Ortografia. “H”a modu sistematikoan erabiltzen du gaizki. “Tx” eta “ts” afrikariekin nahasi da hitz batean (“altsatu”). Hitz beregain batzuk elkarrekin idatzi ditu zenbaitetan (“Tori txokolateau; Eskerrikasko”).

Alderdi honen balorazioa: Aurkezpena txukuna da baina ortografian egin dituen akatsengatik puntu 1 bakarrik lortu du.

### Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Paragrafo bakarreko idazlana da bada ere, bi zati bereizten dira: aurkezpena den hasierako narrazio zatitxoa eta elkarriketa bidez bideratzen duen gainerako guztia.
- Paragrafo kopurua. Ez du testua paragrafotan bereizi. Narrazioaren bidez kontatutakoa eta elkarriketaren bidez garatutakoa hobeki bereizi beharko lituzke. Puntuazio-zeinu batzuk falta dira, esaterako galdera-ikurrak.
- Bilakaera tematikoa. Ekintzak bata bestearen jarraian idazten ditu, deskribapenik eta informazio osagarririk gabe.
- Perpausak. Perpausak ondo bereizita daude, puntuazio-zeinuekin.
- Joskera. Perpausak eta paragrafoak lotzeko ez du testu-antolatzailearik erabili.
- Pertsonaien ezaugarritzea. Aitona eta amaren presentzia hautematen da, baina hauen deskribapenik gabe.

Alderdi honen balorazioa: Antolamenduari dagokionez, hobetu badaiteke ere, istorioak badu koherentzia eta ulerkorra da. Horregatik, puntu 1 dagokio.

### Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Gaztelaniazko egitura jarraitu du gehienetan.
- Aditzak. Aditzak ez ditu erabat zuzen erabili, baina aditz-denborak modu egokian erabili ditu
- Komunztadura. Ez dago komunztadura akatsik.
- Deklinabidea. Ergatiboa modu kaskarrean erabili du, baina bestelako deklinabide-kasuak ongi erabili ditu.
- Erregistroa. Erabili duen erregistroa zuzena da.
- Lexikoa. Ez du lexiko zailik erabili, bere mailarako oinarrizkoegia.

Alderdi honen balorazioa: Orokorrean deklinabide eta aditzen erabilera ez da zuzena izan eta honek idazlanaren maila jaitsi du. Horregatik, dagokion puntuazioa 1 da.

## 2. adibidea

Bazein bein Aitamak txokolate magiko  
bat eman zidan, esan zidan oso ongi  
zintzeke eta bakarrik benetan behar  
nuenean erabiltzea.

Bi urte pasatu ondoren gogoratu nintzen  
txokolate magikoa eta esan nuen noiz  
erabiliko dut? galdetu nintzen nire  
buruari. Egun batean oso nekatuta nengoan  
gainera bi futbol partida nituen orduan esan  
nuen niri loka ordua da txokolate magikoa  
jateko. Korrika biziarekin nire lagelara  
joan nintzen eta jan nuen zati txiki bat.  
Bat batean nire gorputza astintzen  
hori zen. 5 minutu eta gero esnatu eta  
harrara sentitzen nintzen oso harrara.  
Nire ispilua hurrean jarri eta... ez zen  
ezer pasatu. Aratza loka lehengo partidara  
jokatu eta irakazi genuen oso pozik jarri  
ziren nire Aita, Ama, Aitona, Amona, Osaba, Leke eta lehenengusua.  
Gero bigarrena jokatu eta gero Galdu genuen  
baina ez zitazidun inporta.

Gauetan aialtzera joan gurekin kanpera  
nire familiarekin eta nire Aitonari eskerat  
eman nion. BUKATUBA

**Amaiera**

| <b>Zuzentzaileak edo irakasleak<br/>bete beharreko puntuazio taula</b> | <b>Puntuazioa<br/>0, 1, 2 edo 3</b> |
|------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|
| <b>Aurkezpena eta<br/>ortografia</b>                                   | <b>2</b>                            |
| <b>Kontakizunaren<br/>koherentzia</b>                                  | <b>2</b>                            |
| <b>Zuzentasuna eta<br/>hiztegiaren aberastasuna</b>                    | <b>2</b>                            |
| <b>29. itema – Guztira</b>                                             | <b>6</b>                            |

## 2. adibidea

### Aurkezpena eta ortografia

Aurkezpena. Txukuna da, zirrimarrik gabe. Ez du izenbururik jarri. Itxura garbia du.

- Letra. Letra ulerterraza eta garbia da.
- Marjinak. Orokorrean ongi eutsi die marjinei.
- Ortografia. Ortografia akats gehienak “h”-aren erabilera okerragatik izan dira. Gainera, letra larria behar ez denetan erabili du (Ama, Aita, Aitona, Amona...).

Alderdi honen balorazioa: Aurkezpena txukun samarra da baina ortografian egin dituen akatsengatik 2 puntu dagozkio.

### Kontakizunaren koherentzia

Egitura. Egitura zuzena da, istorioa kronologikoki modu koherentean kontatu du.

- Paragrafo kopurua. 3 paragrafotan bereizi du. Hala ere, testuaren luzera kontuan hartuta paragrafo gehiago jar litezke.
- Bilakaera tematikoa. Denbora aldetik salto gehiegi daude eta ez ditu ekintzak modu progresioan azaldu eta horrek nahasmena sortzen du.
- Perpausak. Esaldi batzuk nahiko luzeak dira eta batzuetan ez daude sintaktikoki ongi egituratuta.
- Joskera. Denboran salto egiteko, lokailuak erabili ditu (“bi urte pasa ondoren, egun batean”).
- Pertsonaien ezaugarritzea. Familiako kide askoren presentzia ageri da, baina deskribapenik gabe.

Alderdi honen balorazioa: Antolamendu aldetik hobetu badaiteke ere, istorioa ulerkorra da. Horregatik, 2 puntu dagozkio.

### Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

Sintaxia. Ez da erabat okerra baina gaztelaniazko hurrenkera sintaktikoa erabili du gehienetan.

- Aditzak. Aditzak ez ditu erabat zuzen erabili, batez ere aditz-laguntzaileak (“galdetu nintzen nire buruari”).
- Komunztadura. Ez dago komunztadura akatsik.
- Deklinabidea. Ergatiboaren erabilera dela eta, zenbaitetan huts egin du. Beste deklinabide kasu batzuetan ere akatsak izan ditu (“erabiltzeko” ordez “erabiltzea”).
- Erregistroa. Bere adina kontuan hartuta egokia da.
- Lexikoa. Lexiko jasoegirik erabili ez badu ere, hitz berezi batzuk egoki erabili ditu (“korrika bizian”).

Alderdi honen balorazioa: Orokorrean, lexiko jasoegirik erabili ez badu ere, erregistroa eta lexikoa nahiko txukun eman ditu. Horregatik, 2 puntu dagozkio.



### 3. adibidea

Nik txokolate ori munduko pakea berbera erabilika nuen Orretarako munduko armamendu gutia aipatu eginga nuen.

Orretar gain <sup>manduan</sup> ~~nuen~~ pabresiarekin albatuta nuen. Robin Hood bezala eginga nuen aberatzei kendu eta pobrei eman, orretarako munduko aberatzen etzetan lapurtu eginga nuen eta pobrei emango nien orreko munda erakatu egingo zen.

Ori egin eta gero denentzat itartetako egingo nituen. Nire indarrez baliatuz eta ez bakarrik ori Nire txokolatea bertan langilekin partekatuko nuen orreko ikartetako orriekin alka duzu.

Eta ori gutxi balitz lan parta gero egingo nituen. Olinariak, Ospitalak, unibertsitateak eta... Egingo nituen nire langilekin eta kumartzaile orri enpresa bat sortuko nuen "TXOKOLATE DUNAK" deituko zen.

Lan proiektu askak egin ondoren Askas proiektuak egingo nuen, telebistaren aurrean jarri txokolatea beratu, palamitak egin eta pelikula bat jarri.

**Amaiera**

| <b>Zuzentzaileak edo irakasleak<br/>bete beharreko puntuazio taula</b> | <b>Puntuazioa<br/>0, 1, 2 edo 3</b> |
|------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|
| <b>Aurkezpena eta<br/>ortografia</b>                                   | <b>1</b>                            |
| <b>Kontakizunaren<br/>koherentzia</b>                                  | <b>3</b>                            |
| <b>Zuzentasuna eta<br/>hiztegiaren aberastasuna</b>                    | <b>2</b>                            |
| <b>29. itema – Guztira</b>                                             | <b>6</b>                            |

### 3. adibidea

#### Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Ez da oso txukuna. Izenburua falta zaio. Ez die eskuineko marjinei eusten. Zirrimarrak daude.
- Letra. Letra hobetu lezake.
- Marjinak. Ezkerraldeko marjinei eusten badie ere, eskuinaldean idazteko lerroak gainditzen ditu zenbaitetan.
- Ortografia. Askotan egin du huts “h” duten hitzekin. Beste batzuetan, “tx”, “ts” eta “tz” afrikariak nahastu ditu. Beste batzuetan hizkiren bat jartzea ahaztu zaio [“best(e), egin(g)o”].

Alderdi honen balorazioa: Edukia ona den arren, aurkezpenean eskas samar ibili da eta horregatik puntu 1 bakarrik dagokio.

#### Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Oso ondo antolatutako idazlana da. Paragrafo bakoitza ideia batekin lotuta baitago.
- Paragrafo kopurua. 5 paragrafo bereizi ditu eta bakoitzean gaiarekin loturiko ideia zehatz baten inguruan aritu da. Puntuazio-zeinuen erabilera oso egokia izan da.
- Bilakaera tematikoa. Argudio testua denez, sarrera, argudioak eta bukaera ditu eta oso ondo bereizten dira.
- Perpausak. Perpausak modu zuzenean osatuta daude.
- Joskera. Paragrafoak eta ideiak lotzeko erabilitako lokailu eta testu-antolatzaileak aberatsak eta anitzak izan dira (*“Horretaz gain, hori egin eta gero, hori gutxi balitz, lau proiektu hauek egin ondoren”*).
- Pertsonaien ezaugarritzea. Bere presentzia azaltzen du, baina pertsonaia ezagun baten erabilera ere egiten du konparaketa batean.

Alderdi honen balorazioa: Idazlanaren mamia oso modu koherentean kontatzeagatik, eta bere adina kontuan hartuta, edukiak landu dituen moduagatik, 3 puntu eman zaizkio.

#### Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Sintaxi zuzena. Perpausen egitura egokia eta ulerterraza.
- Aditzak. Oro har, ongi erabili ditu. Aditz-denborei dagokionez, modu sistematikoan nahastu du aditz-denbora hipotetikoaren iraganarekin, adibidez, “nuke” erabili ordez, “nuen” erabili du.
- Komunztadura. Ez dago komunztadura akatsik.
- Deklinabidea. Deklinabide-kasuak zuzen erabili ditu.
- Erregistroa. Narrazioari dagokionez, erregistro egokia erabili du.
- Lexikoa. Lexikoari dagokionez, eta bere adina kontuan hartuta, lexiko jaso samarra erabili du (“orekatu, partekatu, baliatu”).

Alderdi honen balorazioa: Lexikoari dagokionez, maila nahiko jaso erabili duen arren, aditzen erabilera egin dituen akatsak nabarmenak izan dira, eta horregatik 2 bakarrik puntu lortu ditu.

## 4. adibidea

### AITONAREN TXOKOLATEA

Kaixo lagunak!! bat nire aitona nire etxeko jain  
Zer moduz hortik? Ni Bartzelonan nago. Ezetz osmatu  
zer gertatu ziteaizan atzo!! Atzo nire aiton-amonei bisita  
bat egitera joan nintzen. Biei muxu bana eman ondoren,  
nire aitonak txokolatezko bonbai kutxa bat eman zidan.  
Ondoren etxera joan ginen eta inork ikusi gabe  
bonbai bat jan nuen. Segidan saltoka hasteko gogo  
pila nituen. Nire logelara joan nintzen eta hor saltoka  
hasi nintzen, pila bat saltatzen nuen espazioan bezala  
ez nuen nire gorputa sentitzen!! Oh, oh... Azkenean  
nire burua kontrolatzea lortu nuen. Baina nahi gabe  
pasabidetik egan egiten hasi nintzen!! Uy, uy, uy...

Hurrengo egunean ikastolara joan nintzenean kontrolatzea  
lortu nuen. Ikastolako ordu aspergarri guztiak pasa zire-  
nean, 16:30 iritsi zirenean, nire ama hitz egiten hasi zen.  
Orduan ni salto erraldoi bat egin nuen eta ia-ia  
ilaragia ukitzen dut. Gero nahi gabe Txinara joan nintzen  
eta gero Hawaiara. Horrela munduari buelta eman nion.

**SUPER GUAI IZAN ZEU!!!**

Nire ama deitzen dit joan beharra daukat,  
laster arte,

**Amaiera**

| <b>Zuzentzaileak edo irakasleak<br/>bete beharreko puntuazio taula</b> | <b>Puntuazioa<br/>0, 1, 2 edo 3</b> |
|------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|
| <b>Aurkezpena eta<br/>ortografia</b>                                   | <b>3</b>                            |
| <b>Kontakizunaren<br/>koherentzia</b>                                  | <b>3</b>                            |
| <b>Zuzentasuna eta<br/>hiztegiaren aberastasuna</b>                    | <b>3</b>                            |
| <b>29. itema – Guztira</b>                                             | <b>9</b>                            |

## 4. adibidea

### Aurkezpena eta ortografia

- Aurkezpena. Txukuna eta zirrimarrarik gabea. Izenburua jarri du. Kolore desberdinak erabili ditu zati desberdinak nabarmentzeko.
- Letra. Argia eta irakurterraza.
- Marjinak. Oso ondo zehaztu ditu.
- Ortografia. Ortografia akats bakarra dago.

Alderdi honen balorazioa: Lau baldintzak aise bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntukoa da.

### Kontakizunaren koherentzia

- Egitura. Aditz-denborak modu egokian erabiltzen ditu kontakizuna modu kronologikoan antolatzeko.
- Paragrafo kopurua. Idazlanaren egitura egokia da, baina paragrafo gehiagotan bana daiteke.
- Bilakaera tematikoa. Bilakaera tematikoa hautematen da. Jarritako gaiaren inguruan idatzi du, gaian eman diren zehaztapen guztiak idazlanean islatuta.
- Perpausak. Ondo eta modu zuzenean osatu ditu. Gainera onomatopeien erabilerak errealitate puntua ematen dio istorioari.
- Joskera. Testu-antolatzaile ugari erabili ditu perpausak eta paragrafoak lotzeko eta kontakizunari koherentzia emateko.
- Pertsonaien ezaugarritzea. Ez dira pertsonaia gehiegi azaltzen eta ez ditu deskribatzen, baina ondo hautematen dira azaltzen direnak.

Alderdi honen balorazioa: Sei baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntukoa da.

### Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Sintaxia. Ergatiboan akats batzuk izan arren, oso maila ona duela erakutsi du.
- Aditzak. Aditzak eta aditz-denborak zuzen erabili ditu.
- Komunztadura. Akatsik gabea.
- Deklinabidea. Oso zuzen erabili du.
- Erregistroa. Erregistro egokia erabili du.
- Lexikoa. Hiztegi zailegirik erabili ez badu ere, adina eta testuingurua kontuan hartuta, hitz egokiak erabili ditu.

Alderdi honen balorazioa: Sei baldintzak bete ditu. Beraz, dagokion puntuazioa 3 puntukoa da.